

BIOLOGIA ETA GEOLOGIA ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea | Asier Bermejo | Maila | 1.Batxilergoa | Ikasturtea | 2020-21

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Biologia eta Geologia hautagaia da ikasturte honetan. Astean 4 ordu izaten dira

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1) Hizkuntza komunikazioa.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
3) Gaitasun digitala.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
4) Ikasten ikastea	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
6) Ekimena eta ekintzailtza.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Batxilergoa: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

EDUKIAK

[BATX 1 BIOLOGIA ETA GELOGIA CURRICULUMA](#)

- 1.- Lurraren sorrera eta egitura
- 2.- Litosferaren dinamika
- 3.- Magmatismoa
- 4.- Metamorfismoa
- 5.- Meteorizazioa eta sedimentogenesia
- 6.- Petrogenesia
- 7.- Gure planetaren historia
- 8.- Izaki bizidunak eta haien antolaketa
- 9.- Zelulen desberdintzapena eta espezializazioa
- 10.- Biodibertsitatearen garrantzia
- 11.- Izaki bizidunen eboluzioa eta sailkapena
- 12.- Biziaren zuhaitza
- 13.- Landareen nutrizioa
14. Landareen harreman funtzioa eta hazkundearen erregulazioa
15. Landareen ugalketa
- 16.- Animalien nutrizioa: digestioa eta arnasketa
- 17.- Animalien nutrizioa: zirkulazioa eta irazketa
- 18.- Animalien harreman funtzioa: errezeptoreak eta efektoreak

19.- Nerbio eta hormona kordinazioa animalietan
20.- Animalien ugalketa

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

BATX 1 BIOLOGIA ETA GELOGIA CURRICULUMA

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Saio ak	Unitateak	Saio ak	Unitateak	Saio ak	Unitateak
8	1.- Lurraren egitura eta dinamika	9	5.- Zelulen desberdintzapena eta espezializazioa	11	15.- Landareak: ugalketa
8	2.- Mineralak eta harriak	11	6.- Izaki bizidunen aniztasuna	14	16.- Animaliak: nutrizioa
5	3.- Tektonika eta denbora geologikoa	15	13.- Landareak: nutrizioa	5	18.- Animaliak: harremana
19	4.- Izaki bizidunak eta haien antolaketa	5	14.- Landareak: harremana	10	20.- Animaliak: ugalketa

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Biologia eta Geologietako klaseetan ikaslea da protagonista, eta irakaslea laguntzailea, beraz bai saio teorikoetan zein praktikoetan ikaslearen **parte-hartzea oso garrantzitsua** da..

Ekintzak **ikasgelan, laborategian eta informatika gelan** egingen dira. **Ikerketako proiektuak** ere egingen dira.

Laborategiko saiakuntzak eta lanak taldeka egingen dira, taldekideen kopurua 3koa delarik (lan kooperatiboa).

Ahal denean ikus-entzunezko baliabideak erabiliko dira (bideoak, aurkezpenak) lagungarri gisa.

Ikasle bakoitzak, testu liburuaz gain, "**klaseko koaderno**" izanen du zeinetan bere apunteak eta klaseko ariketa guztiak azalduko diren. Honetaz aparte idazteko behar dutena eta portafolios bat.

TESTU LIBURUA: **BIOLOGIA ETA GEOLOGIA LB1 SANTILLANA 2015**

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK

KALIFIKAZIO TRESNAK

Azterketak

Laborategiko txostenak

Etxeko lanen eta gelako jarreraren erregistroa

KALIFAZIO SISTEMA

Edukiak: ebaluazioa bakoitzean bat edo bi azterketa egingen dira, eta eduki teoriko eta praktikoak aztertuko dira.

Klaseko jarrera: Etxerako ariketak edo praktikak ez egitea, irakaslearen adierazpena oztopatzeak, praktiketarako materiala ez ekartzea eta errespetu faltak izatea ikaskideekin nahiz irakaslearekin nota %10-ean jaisten ahal du.

Ebaluazio nota:

Azterketak:

1.go azterketak, ebaluazio notaren % 30 suposatuko du eta nahitaezkoa izanen da. Ez egitekotan nota 0 izanen da.

2.azterketak % 60 puntuatuko du.

Jarduerak:

Klaseko eta laborategiko aktibitateak: %10

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENKOAK

Euskararen erabilpena eta ortografia: adierazpena idatzizko lanetan baloratuko da (praktiken txostena, azterketak)

Ikasleek alde zuzenetik jardueren balioa jakin behar dute. Azterketetan, galdera bakoitzaren balioa zehaztu behar da.

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu behar da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

5 baino gutxiagoko nota ateratu dutenentzat ebaluazio bakoitzean **berreskurapena** egon behar da azterketa edota lanen bidez. Berreskurapenetako nota ateratu dutenaren % 80 a izan behar da. Gainditzeko 5 bat beharrezkoa da.

Ohiko ebaluazioa

Ekaineko Ohiko ebaluazioa baino lehen, ikasleek aukera izan behar dute, momentu horretan gainditu gabe dituzten ebaluazioak berreskuratzeko, errekuratzio azterketak edota lanak gaindituz.

Ez ohiko ebaluazioa:

Ikasleek aukera izan behar dute, gainditu gabeko ebaluazioen berreskurapena egiteko, ebaluazio hauei buruzko azterketa edota lanak gaindituz.

KANPOKO EBALUAZIOA

Maila honetan ez dago kanpoko ebaluaziorik

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.

